

ZULOAGA 1870-1970

Aurten, Inazio Zuloaga eibartar artistaren ehungarren urteburua dogu. Bere arte lanari buruzko zerbaite esateko, aukerako unea dala uste dogu, eta goazen zuzen zuzenean harira.

Zuloaga izango da munduan izen haundiena hartzera heldu dan eibartarra. Eta eibartar aldetik, beste zenbait zertzeladarekin,* lehenago ere emana dogu Eibar (25, 1959) eta Egan (4-6, 1962) aldizkarietan. Honegatik, oraingo honetan, nahiago dogu arte soila-ren* aldetik bakarrik begiratzea.

Izan ere, asko ere asko diskutitu da Zuloagaren arteari buruz, eta oraindino asko diskutitu beharko da hain lan haundia eta hain ospe haundia hartzera heldu zan pintore honi buruz. Bere izena ez da berehalakoan* isilduko artearen kondairan.

Zuloaga, Bilboko «Artistas Vascos» elkartearen sortzaileetakoa zan 1911.ean. Hemendik ikusi geinke, gure mendearen* hasieretan sortu zan artearen euskal eskolari lotuta egoela. Baina, eskubidez bertakoa bazan ere, izatez ez. Izatez, beste bide batzuk urratu zituan: Etxebarria, Arteta, Olasagasti... eta kidekoengandik oso urruti ebiltzan bideak. Bakarti baina erraldoi* agertzen jaku; bere entzutea, munduaren lau aldeetara zabaldua.

Bere gurasoak ere artistak zirenez, jatorritik ekarren arte grina. Inongo eskolatara, inongo elkarte girora, ez zan inoiz menderatu. Aitagandik hartutako oinarriekin, ibiliz eta ikusiaz hartu eban bere bidea.

Bere ikastaro nagusiak Parisen egin zituan, 1890.etik hasita. Gauguin-ekin oso adiskide egin ei zan, baina haren jokaririk ez eban hartu. Bai, lehen ikastaro haretan, inpresionisten era orokar* bat, gero, Espainiako klasikoak hobeto ezagutzean, nahikoa bazterturik erabiliko ebana, paisaje soiletan* edo izan ezik. Hori bat, irudiak beltz* sendoz inguratzeko era, Toulouse-Lautrec-engandik etorkiona, bizitza guztian erabiliko eban; baina Pissarro-ren jokera koloreak eta egitura, Nere aita izeneko kuadroan garbi agertzen dana, esate baterako, betiko baztertuko zituan. XIX. mendearen amaieretan hain eratu egoen modernismotik ere edan eban; baina, denboran pasatuaz, geroago eta gutxiago agertzen jako joera horretakorik.

Espainiako klasikoak hobeto ezagutzean, euren joeretara bihurtu zan. Eta, honeen artean, kasik Velázquez, Greco, Ribera eta Goya izan ziren bakarrik. Ez dogu ahaztu behar, Parisko egotaldian, inpresionistengandik Greco behar dan legez ezagutzera heldu zanean, beste barik, Paristik Toledora bidean ipini zala, Orgaz Kondearen lur ematea ikustera.

Esan ditugunok maisurik hoberentzat hartu zitalako, Parisen ikasi eban eskolak atzera begira ipini eban. Eta, artean, estetika berrien sorketak daukan garrantziagatik, atzera begiratze hau dala ta, kritikalarik asko jarri jakozen kontra, eta artistengandik zer esanik ere ez. Arteak bere historian zehar dakarren forma aldaketa, era berrien aurkitzea, koloreekin saio berriak egitea... berba batean: sorkundera begiratzea. Gorengo kritikok askok, eta artistek zer esanik ere ez, gaizki ikusi eben. Eta hemendik dator, aspaldiko urteetan geroago eta gorago doazen artisten izenen aurrean, Zuloagaren gutxitzea, jaistea.*

Gaien aldetik, berriz, kontuan izan behar dogu, 98.eko gizaldi haretakoa zala, Cubarekin azken kolonialismoa (askena ote?) galtzean, Espainia bertara begiratu eta bertako autokritika egin behar zala esaten ebenen artekoa. Eta haren iritziakaz horniturik, eta euren artekoetatik Valle-Inclán eta Unamunogandik gehienbat, orduan hasi zan ikaragarrizko Espainia beltz ha ikusten. Eta honetan tremendista bat izan zan. Zezenak, toreadoreak, ljiotoak, haundiki aberatsak, munstroak (lepo oker, ipotxak,* eta abar) ziren berak ikusten zituanak. Haundikiei eta mixeriarik kritikak. Alde batetik ez da harrizkekoa, eibartar langileen kemena ezagutu eta ondorean hareek ikustean, holako izugarrikerietara jotzea. Goi eta behe, mutur biak ikutzen zituan, bitartekorik ez balitz legez. Honegatik, berak pintatu ebana, Espainian ematen zan fenomeno bat zan, baina inondikan ere ez Espainiako errealdidea.

Gero, pinturako teknika iritzi hestu batzuetan euki eban, artea beraren uste orokarrean bezala. Bere usteak kuaderno batean idatzita laga zituan, 1925.eko esku-idazti batean. **Artea zer da?** izenez; eta Lafuente Ferrari-k fotokopiaturik argitaratu eban «La vida y el arte de Ignacio Zuloaga» liburuan (ikusit XXVIII. lamina).

Era berrien sorkundera uko egin eutsan, eta, hala ere, bakar bakarrik jaikitzen da. Bere ahalmene mugak ondo ezagutzen zituan, eta bere gogo guztiarekin zintzo jokatu eban berak ona eritxon bidetik; eta, barroko kutsuan* jausi bazan ere, bere jokabide zintzoagatik irauten dau zutik. Gainera, asko esatea lizateke, baina ez dogu uste, beherago joango danik.

Ba dauka bere alde ona: lehen aipatutako lau klasikoan joerak erabili arren, estilo berezi baten jabe egin zala, akademismo guztiak uxaturik.

Dibujante legez, ikaragarrizko ona zan. Ondo dibujatu ondorean, gainean pintatzen eban, dibujoekin gehiegi arduraturik.

Koloreen aldetik, inpresionismo tankeran* egindako paisaje batzuk kenduz gero, klasikoan iluntasunera jotzen eban, aurpegia eta gorputzaren parte batzuk argi dizdiratsuan ipiniatz, indar berezi bat emanaz. Gaietan bezala, koloreetan ere kontraste haundiak dituen. Beretzat, Rusiñol-ek inoan* legez, bitarteko tintak desesperagarriak ziren.



Zuloaga, bere buruz ikusita.
Azken autoerretrota, 1942-an egin.

Bere lanetan atmosferarik agertzen ez ebalako, inpresionismo kritikok esaten ei outsoen: «Zuk egiten dituzun pertsonajeek ez dabe arnasarik hartzen». Eta berak, behin, erantzun ei eban: «Eta zer? Jaten daben ala ez ere ez nalz arduratzen».

Zuloagaren helburuak* pintatzeko era batera lotuak ziren, aurrez hautatu eta erabakitako modulo batzuen barruan. Hala ere, inork ezin leike ukatu artista hau eta bere lana.

Eibartarrok ezer gutxiagatik harrotzekoak bagara ere, Zuloagagatik, esango neuke, ez garela harrotu berak merezi dauan neurrian.

Eta, esanak esan, esateko asko gelditzen da. Izan ere, bere lana hain da ugaria, hain da sakona... Artearen kondairan beiti izango dau eibartar baten ikusmoldea, euskaldun baten ikusmoldea. Ez pentsa, Euskal Herriko gaia soilik erabiltzeak euskaldunago egiten gaituanik. Guk ere izan geinke beste herriak ikusteko era bat, eta ikusteko era honek bere garrantzia izan Zuloagaren lanetan.